

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

PARTE HARTZEKO PROZESUA.

ETN-REN PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Erribera eta Erriberagoieneko lurralde saioa

Tokia: Lestonnac Gizarte Etxea, Tuteria

Data: 2022ko azaroaren 30a

Ordua: 16:30 - 18:30

SAIOAREN EGITURA

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren aurkezpena.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Lurralde saio honen helburua NLE berrikusteko dokumentua aurkeztea zen. Dokumentu horrek maiatzean aurkeztutako zirriborroaren bilakaera garrantzitsua dakar, eta hasierako izapideak egin eta jendaurrean jarri aurretik parte hartzeko aukera ematen du.

Funtsezkoa da adieraztea parte-hartzearen xede den dokumentuak oraindik ere kontuan hartzen dituela hobekuntzak, eta, beraz, fase erabat parte-hartzailean dagoela. Fase honek abenduaren 15era arteko iraupena izango du (azaroaren 14an bertan hasi zen; egun horretan dokumentua Nafarroako parte-hartzearen webgunean argitaratu zen).

GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azaldu da. Ez dira sartu pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Diagnostikoaren zati handi batean ados gaude, ezaguna eta partekatua baita. Baina adierazle konposatuak kalkulatzeko modua oso eztabaidagarria da eta eragin handia izan dezake. Ez gaude ados gai horretako puntu askotan.
- Aurreko fasean egindako ekarpenei buruz galdetu da. Oraindik ere kezka handia dago bi gairen inguruan: egoera sozioekonomikoa eta immigrazioaren eta zahartzearen erronka. Gai horietan, Erriberaren egoera eta Nafarroako gainerako eskualdeena guztiz desberdinak dira, eta NLEk hala ikusarazi beharko luke.
- Konpentsazio Funtsaren garrantzia azpimarratu da. Errealitate bat izan beharko luke, oso zaila baita udalerrriak eta eremuak beren kabuz aurrera ateratzea.
- Zehaztapenak eta alderdi batzuetan lege-lotura planteatzen badira ere, ez da ahaztu behar garrantzitsua dela NLEk politika sektorialen lurraldetasuna bideratuko duen tresna izatea.
- Nafarroa oso anitza da eta agertoki asko ditu. Horregatik, politika sektoriala ezin da berdina izan eremu guztietan.
- Garrantzitsua da NLEk planteatzea baliabideak eta azpiegiturak nola kudeatzen diren eta horien eraginak maila guztietan partekatzea. Azpiegitura handiek ezin dituzte onurak utzi lurraldearen zati batean soilik, eta oreka egon behar da eragin kaltegarrietan eta instalazio horiek hartzen dituzten herrietan.
- Erriberako egoera sozioekonomikoa Nafarroako gainerako tokietakoa baino askoz okerragoa da. Baliteke zonalde batzuetan langabezia txikia egotea, baina langileen lan baldintzak mahaiaren gainean jarri behar dira; izan ere, horietaz hitz egin ezean, adierazleak engainagarriak izan daitezke.

- Garrantzitsua da NLEk Nafarroako lurralde-koehisorako garrantzitsua den trenbide egituratzaile baten alde egitea.
- Kezka handia dago AHTak Erriberan izan dezakeen eraginari buruz, parke eolikoei, orubeei eta abarri dagokienez.
- Ahaleginak egin beharko lirateke alderdi batzuetan LOFTUren erreformak NLEren arau-izaera gehitzeko. Adibide garrantzitsu bat izango litzateke politika sektorialek nahitaezko txostenak egin behar izatea lurraldetasunari eta haren aplikazioaren orekari buruz.
- Tuterako industrialdeaz hitz egiten denean, sektoriala den guztiak eskualdez gaidikoa izan beharko luke, hiru erriberen potentzialtasunak bat egin dezan.
- Eskualdeko kontakizuna egon beharko litzateke, baina kohesioan oinarrituta egon beharko luke, eta hori zaila da orain.

Ekarpenen zatia amaitu ondoren, erredakzio-taldeak azpimarratu du garrantzitsua dela ekarpenak bidaltzea, nahi den zentzuan eta norainokoan, adierazitako webgunearen bidez, eta abenduaren 15era arteko epearekin.